

**OGASUN BATZORDEAREN  
DIKTAMENA**

**2015-12-21**



Esp. kodea: 2015DPRE0001

Gaia: 2016ko Udal Aurrekontua  
Hasiera eguna: 2015/12/17

**OGASUN BATZORDEA**  
**2015-12-21**

**2016. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.**

Ogasun Zinegotzi ordezkariak 2016ko aurkeztu du aurrekontuen proiektua, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailtakoek egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali dute, izapidetzeko.

Horri buruz, hartarako emandako epean, EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeak hainbat emendakin aurkeztu dituzte, 2016ko aurrekontuen proiektuari dagokionez.

Ogasun Batzordean gastuak handitzeko aurkeztutako hainbat emendakin aho batez onartudira (besteak beste, Arrasateko diagnostiko soziala egiteko partida berria sortzea, Memoriaren gaia lantzeko partida berria sortzea, funtsa sortzea genero indarkeriaren prebentziorako plana egiteko, futs bat sortzea parte-hartzea lantzeko, aniztasun lanetarako teknikariaren lan-jarduna haunditzea, Auzoetako jaietarako eta kultura ekintzetarako partidak handitzea, ekarpena egitea Zubillaga Hiltegi SLko inbertsioetarako), eragin ekonomikoa 155.198,34 eurokoa izanik.

Gastu gehikuntza hori orekatzeko zenbait kontu sailtan dotazioa murriztea onartu da, horietatik batzuk emendakinaren bitartez ere proposatuta (prozesu parte-hartzailea erloju eraikineko beharrak zehazteko, udaletxeko apaindura gastuak, Turismo informazio puntuak, ikerketa bat udal antolaketari buruz, gabonetako argiteriako inbertsioak, lehenengo sektoreko sentsibilizazio ekintzak, bidegorri proiektua eta, azkenean, koadraketarako aldea, maileguaren kopuruarekin).

Gainontzeko emendakinak ez dira onartu eta, azalpenak jaso eta gero erretiratzeko direnak izan ezik, gainontzekoak mantentzen dira Plenorako.

Beraz, onartutako emendakinak aurrekontuaren proiektuan txertatu eta gero, aurrekontu proiektuaren zenbatekoa da:

**2016ko ekitaldiko aurrekontu orokorren proiektuak, udalbatzarrak onartu dezan jarri dena, HOGEITA HAMABOST MILIOI LAUREHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA ETA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (35.443.258,50 €), eta aurrekontu horretan sartuta daude Udalaren beraren aurrekontua, HOGEITA HAMABI MILIOI HIRUROGEI ETA HEMEZORTZI MILA ETA ZAZPI EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (32.078.733,50€) eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontua, HIRU MILIOI ETA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA ETA ZAZPIREHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMOREKIN (3.433.766,48 €)**

Onartutako emendakinak txertaturik, aurrekontu proiektua bozkatu da, aurrekontuko kontu sailak eta exekuzio arauak barne. Ogasun Batzordeak, EAJ-PNVko bi ordezkarien eta PSE-EEeko ordezkariaren aldeko botuekin, EH BILDU eta BALEIKEko ordezkarien abstentzioarekin eta IRABAZIko ordezkariaren kontrako botuarekin, proiektuari aldeko txostena ematen dio eta Udalbatzarrari proposatzen dio akordio hau hartzea:



---

**Esp. kodea:** 2015DPRE0001

**Gaia:** 2016ko Udal Aurrekontua  
**Hasiera eguna:** 2015/12/17

---

1.- Hasiera batean onartzea 2016eko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren aurrekontua, aurrekontu bakoitza betetzeko arauekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.

Arrasate, 2015eko abenduaren 21a

BATZORDEBURUA